

C5. Lanbide heziketa. L.H.n ari diren pertsonen kopurua.

Lanbide Heziketan hiru azpisistematan ari diren pertsonen kopurua: Hasierako Lanbide Heziketan, Heziketa Etengabea eta Okupazio Heziketan.

EAEko Lanbide Heziketa hiru azpisistematan antolatuta dago: Hasierako L.H., LH. etengabea eta Okupazio L.H.

Lehenengoak ikaslea lan mundura sartzeko gaitzen d u. Unibertsitate ikasketarik eginez gero, hainbat ikasgai balioztatzeko aukera ere ematen dio. Berariazko Lanbide Heziketan bi maila daude: Gradu Ertaineko Prestakuntza Zikloek ematen duten Teknikari maila eta Gradu Goreneko Prestakuntza Zikloen bidez lortzen den Goi Teknikari maila.

Etengabeko L.H. biztanleria okupatuaren lanbidez prestakuntza eguneratu eta hobetzera bideratuta dago.

Okupaziozko Lanbide Heziketa langabeei zuzentzen zaie, eta helburu behinena langabeak hobeto gaitzea da, lanposturik aurkitzea errazago izan dakien.

Hasierako LHren onspen maila neurtzen duten adierazleetako bat Gradu Ertaineko eta Gradu Goreneko Prestakuntza Zikloetan ari diren derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasleen portzentajea da, eta adierazle horretan gorako joera nabari da.


Termino absolutuetan, hasierako LHn ari diren ikasleen kopurua mantendu egin da azkeneko urteotan, derrigorrezko hezkuntzaren osteko eskola jendea gutxitu den arren.

1999-2000 ikasturtean portzentaje hori %44,1ekoa zen, eta 2002-2003an %47koa.

Beste adierazle bat LHko ikasleak Gradu Ertain eta Gradu Goreneko Zikloetan nola banatzen diren da. 1999-2000 ikasturtean Gradu Goreneko Zikloetako ikasleen portzentajea %59,6koa zen eta 2002-2003an %62,4koa, eta horrek, oro har, LHko ikasleen lanbidezko gaitasun mailak hobera egin duela erakusten du.

Etengabeko LHri dagokionez, emaitzak neurtzen dituen adierazle bat prestakuntza ekintzarik, hala teknologian egunean jartzeko beren beregiko ikastarorik, nola EAEko Lanbide Gaitasunen Sistemari lotutakorik egin duten profesionalen kopurua da. Adierazle horrek termino absolututan partaide kopurua handia dagoela dio, gorako joera leunaz.

Okupaziozko LHn emaitzak neurtzen dituen adierazlea prestakuntza ekintzak egiten dituzten langabeen kopurua da. Adierazle hori 10.000 pertsona inguruan dago, eta honetan ere gorako joera nabari da.



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


C5.1 taula

Derrigorrezkoaren osteko ikasleen artean Gradu Ertain zein Goreneko Prestakuntza Zikloetara, edo Batxilergora jo dutenen portzentajea. 1999-2003 ikasturteak.


Derrigorrezkoaren ostean Prestakuntza Zikloen batera zein Batxilergora jo duten ikasleen portzentajea		
Ikasturtea	LH	Batzilergoa
1999-2000	44,1	55,9
2000-2001	44,8	55,2
2001-2002	46,	54
2002-2003	47	53

C5.1 grafikoa

Derrigorrezkoaren osteko ikasleen artean Gradu Ertain zein Goreneko Prestakuntza Zikloetara, edo Batxilergora jo dutenen portzentajea. 1999-2003 ikasturteak.



Iturria: E.J.ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


C5.2 taula

LHko ikasleen banaketa Gradu
Ertain eta Goreneko
Prestakuntza Zikloetan. 1999 -
2003 ikasturteak

LHko ikasleen banaketa		
Ikasturtea	Ziklo ertainak	Ziklo Gorenak
1999-2000	40,4	59,6
2000-2001	37,4	62,6
2001-2002	37,4	62,6
2002-2003	37,6	62,4

C5.2 grafikoa

LHko ikasleen banaketa Gradu
Ertain eta Goreneko
Prestakuntza Zikloetan. 1999 -
2003 ikasturteak



Iturria: E.J.ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila


C5.3 taula

Hasierako LH egin duten zein egiten ari diren ikasleak. 1999 - 2003 ikasturteak


Hasierako L.H. egin duten ikasleak	
Ikasturtea	Ikasleak
1999-2000	30867
2000-2001	30323
2001-2002	30301
2002-2003	29569

C5.3 grafikoa

Hasierako LH egin duten zein egiten ari diren ikasleak. 1999 - 2003 ikasturteak



Iturria: E.J.ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


C5.4 taula

Prestakuntza ekintzarik, bai teknologian eguneratzeko berariazkorik bai Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Gaitasunen Sistemari lotutakorik egin duten profesionalak. 2000 - 2003 ikasturteak.


Prestakuntza etengabeko ikastarorik egin duten profesionalak	
Urtea	Ikasleak
2000-2001	16443
2001-2002	19492
2002-2003	17870

C5.4 grafikoa

Prestakuntza ekintzarik, bai teknologian eguneratzeko berariazkorik bai Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Gaitasunen Sistemari lotutakorik egin duten profesionalak. 2000 - 2003 ikasturteak.



Iturria: E.J.ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila



ISEI-IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


C5.5 taula

Okupaziozko LHn
matrikulatutako ikasleak. 1999-
2001 ikasturteak.

Okupaziozko L.H.n matrikulatutako ikasleak	
Urtea	Ikasleak
1999	8683
2000	10476
2001	10402

C5.5 grafikoa

Okupaziozko LHn
matrikulatutako ikasleak. 1999-
2001 ikasturteak.



Iturria: E.J.ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila